

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Kontratazio mahaiak eratzea. Osoko Bilkura kontratazio-organo gisa

Ikusi egin da lege horren bigarren xedapen gehigarria, toki erakundeek kontratazioei dagokienetz dituzten eskumenak arautzekoa, zeinaren arabera, Kontratazio Mahaiek osaera hau izan behar duten:

1. Mahaiburua

Udalbatzako kide bat edo langile funtzionario bat izango da Kontratazio Mahaiko burua.

2. Kideak:

- Idazkari nagusia.
- Kontu hartzaile nagusia.
- Karrerako funtzionario diren langileak.
- Lan-legepeko langileak.
- Udalbatzako kide hautetsiak. Edonola ere, kide hautetsiak ezin dira izan Kontratazio Mahaiko kideen 1/3 baino gehiago.

3. Idazkaria

Udal funtzionario bat izango da Kontratazio Mahaiko idazkaria.

Kontuan hartu dira, halaber, idazkari nagusiak emandako ALK19/18 txostenean adierazitako alderdi juridikoak.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 22. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, osoko bilkurak hau

EBATZI DU

LEHENENGOA. Onestea Osoko Bilkurari dagokion Kontratazio Mahaiaren osaera hau:

– Mahaiburua:

Alkate-udalburua edo haren eskuordetza jasotzen duen funtzionarioa.

– Kideak:

a) EAJ-PNV udal talde politikoaren ordezkaria:

– Titularra: Joseba Andoni Amondo Escuza.

– Ordezkoa: Ander Larrinaga Saiz.

b) EHBILDU udal talde politikoaren ordezkaria:

– Titularra: Jose Mari Gutiérrez Angulo.

– Ordezkoa: Lamia Arcas Nogales.

c) Udaltzaren idazkari nagusia edo haren funtzioak eskuordetzan jasotzen dituen funtzionarioa.

d) Udaltzaren kontu-hartzailea edo haren funtzioak eskuordetzan jasotzen dituen funtzionarioa.

e) Bi teknikari, kontratatu beharreko gaiaren arabera.

– Mahaiko idazkaria:

Udal funtzionarioa.

Edonola ere, Kontratazio Mahaia bileren deialdiak ordezkaritzarik ez duten udal talde politiko guztiei ere helaraziko zaizkie, publikoki jarduten den kasuetan bertaratu ahal izateko. Bilera horietan, bertaraten diren Udaltzako kideek ahotsa izango dute, baina ez botoa emateko eskubidea.

Kontratazio Mahaia honi dagokio Audio Udalak formalizatzen dituen eta Osoko Bilkuraren eskumena diren kontratuak prestatu, esleitu eta betearaztearen inguruko eskuduntza guztiak, hala administratiboak nola pribatuak, azaroaren 8ko 9/2018 Legearekin, Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoarekin eta kasuan kasu aplikagarriak diren edo aipatutako Legea ordeztu behar duten arauekin bat.

Edonola ere, kide anitzeko organo gisa duen funtzionamenduari dagokionez, urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoaren 15. artikulua eta hurrengoak bete beharko dira.

BIGARRENA. Finkatzea hurrengo egunak eta orduak Osoko Bilkurari dagokion Kontratazio Mahaiko bilerak egiteko.

- Asteartea, 12:30etatik aurrera.

- Ostirala, 12:30etatik aurrera.

Horretarako, udal arlo eta zerbitzu guztiek barne-aplikazio bat dute, zeinetan ikusi ahalko baituten beste arlo edota zerbitzuek kontratazio mahaian bilerak egiteko erreserbatu dituzten orduak. Aretoa eta ordua erreserbatzeko telefonoz deitu beharko da 808 zenbakira eta, ez baldin badago inor, Herritarren Arretako Zerbitzura jo beharko da (HAZ).

HIRUGARRENA. Osoko Bilkurari dagokion Kontratazio Mahaia 1. Solairuko bilera gelan egingo da, ez bada aparteko zirkunstantziarik gertatzen eta, betiere, hala bada, lehenago jakinarazita.

LAUGARRENA. Aditzera ematea erabaki hau udal arlo guztiei, baita Kontratazio Mahaiko kide titular eta ordezkoei. Halaber, erabaki hau argitaratu egingo da Organo Kontratatzailearen Profilean eta ALHAOean.

Laudio, 2019ko uztailaren 12a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE